

DONOSTIAKO UDAL LIBURUTEGIEN SAREA MAILEGUEN ARAUDIA (2016ko azaroa)

Herritar guztiek har ditzakete maileguan doan, Donostiako Udal Liburutegien Sarea osatzen duten liburutegietako materialak. Euskadiko Liburutegiei buruzko Legeak zuzentzen du Donostiako Udal Liburutegien Sarea.

LIBURUTEGIKO TXARTELA

Maileguaz baliatzeko Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko erabiltzaile-txartela aurkeztu behar da.

Txartela eskuratzeko honako hauek aurkeztu behar dira:

14 urtetik gorakoek:

- Eskaera-orria beteta
- NAN edo pasaporteia

14 urtetik beherakoek:

- Eskaera-orria beteta, aitak, amak edo tutoreak izenpetuta

ZER HAR DAITEKE MAILEGUAN?

Erabiltzaileak gehienez eta guztira 20 dokumentu hartu ahal izango ditu maileguan Donostiako Udal Liburutegien Sareko liburutegietatik edo/eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Saretik.

	Liburua	Umeentzako liburua	CD	CDROM	Bidejokoa	DVD	Mapa	Partitura	Aldizkaria	Ereader
14 urtetik gorakoek	5	5	3	3	1	3	1	5	5	1
14 urtetik beherakoek	5	5	3	3	1	3	1	5	5	0
Mailegu egunak	21	21	21	21	21	21	21	21	21	21
Zenbatetan berrituta	2	2	2	2	0	2	2	2	2	0
Erreserbak	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai

Erabiltzaileak bere gain hartuko du maileguan hartutako materialen erantzukizuna; urratu edo galduz gero, erabiltzaileak ordezkoa erosi beharko du eta, salgai ez dagoen materiala bada, ordaindu egin beharko du.

Materialak erabiltzailearen beraren erabilerarako izango dira, ez beste ezertarako; hortaz, debekatuta dago jendaurrean erakustea eta kopiak egitea. Erabiltzaileak jabetza intelektualari buruzko legediaren aurka ez joateko konpromisoa hartzen du.

Luzapenak epearen barruan eskatu behar dira eta materialak ez du erreserbarik eduki behar. Luzapenak egin daitezke: internet-en bidez <http://katalogoa.donostiakultura.eus> telefonoz edo liburutegian bertan.

Maileguan dauden dokumentuak besterik ez dira erreserbatuko. Erreserbak egin daitezke: Internet-en bidez <http://katalogoa.donostiakultura.eus> telefonoz edo liburutegian. Erabiltzaile batek 3 erreserba egiteko aukera izango du.

ITZULTZEA

Materiala itzultzeko epea bete ezean, liburutegiko bazkide izatea galaraziko zaizu denboraldi batez. Zigorak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sare osoan izango du eragina.

- Egun bateko atzerapena, egun bateko zigorra dokumentuko.
- 50 egun baino gehiagoko atzerapenagatik, txartela kenduko zaio dokumentua itzuli arte eta sei hilabetez mailegurik gabe geratuko da.
- Ez da erreserbarik egingo isuna dagoen bitartean.

Materiala posta ziurtatuaren bidez itzul daiteke. Materiala itzultzeko postak eskaintzen dituen beste moduetako bat erabili eta materialen paketea galduz gero, erabiltzaileak berriak erosi beharko ditu.

ERABILTZAILE BEREZIAK

Erakundeek, elkarteek, eta abar taldeko txartela eduki ahal izango dute; horretarako, erakunde edo elkarte direla egiaztatu -zuzendariak, presidentek edo ordezkariak sinatutako agiriaren bidez- eta sinatzailearen NANA aurkeztu behar dute.

E-LIBURUTEGIA: MAILEGU DIGITALA

E-Liburutegia platafaforma bat da Interneten bidez eduki digitalen irakurketa errazten duena. Irakurketa hori streaming bidez, ordenagailuaren bitartez edo gailu mugikorrek direla medio burutu daiteke. Zerbitzu horretara sartzeko gogoratu helbide elektronikoa hau: www.eliburutegia.euskadi.eus

Liburutegiko beste zerbitzuetara sartzeko erabiltzen diren datu berdinak sartzearekin nahikoa da.

- Erabiltzaile batek gehienez 3 liburu hartu ahalko ditu maileguan aldi berean.
- Maileguen iraupena 21 egunekoa izango da.
- Erabiltzaile batek 2 erreserba egiteko aukera izango du.
- Mailegatutako liburua eskuragarri egon daiteke 6 gailutan eta 6 ordenagailutan aldi berean.



Gailu mugikorrenzako Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegien aplikazioa.
http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-lzapp/eu/contenidos/informacion/app_proba/eu_def/index.html